

KULTURA

ATZERRIKO ATLAS LINGUISTIKOAK

Durangoko Azokan, 1983-XII-10an, Euskeraren Atlas etnolinguistikoa izango danaren aurkezpena egon zan. X. Videgainek Franziko ALF eta NALF nolakoak diran aipatu zuen. J. Haritschelharrek, euskeraren atlas horrek izango dituen ezaugarri nagusi batzuk. Eta J.M. Etxebarriak, hemen doan lana irakurri zuen.

I. Atlas Etnolinguistikoen oinarri batzuk

Euskeraren atlas linguistikoa egiteko asmoa eta lehenengo pausoak emon diranian, zori txarrez gu ez gara izan aurrenengoak holako pauso bat emoten, nahikoa atzeratuak baino. 1950 baino lehenago Europan, sartaldekoan eta sortaldeko nazino batzuetan Afrikako leku batzuetan, Asiako batzuetan eta Ipar Amerikan, holako lanak amaituta egozan. Berandu baina gu bere bide horretatik sartu garala uste dot.

Atzerriko atlas pilatxo bat ikusi ostean heuren lanetan agertzen diran dato batzuk azpimarratu gura dodaz, guretzat bere baliogarri diralako.

1. Hizkuntza txiki eta handien atlasak egin dabez, eta hizkuntza oso txikien datoak batu bere bai. Ez deutso ardura hizkuntza batek estatu bat euki edo ez euki. Adibidez hizkuntza zeltikoen artean holako lanak hasita egozan 1950 baino arinago. Estonian bigarren Europako gudua baino lehenago batuta

egozan atlaserako dato asko eta zati bat argitaratuta be bai. Bantu hizkuntzen barruan bere lan batzuk hasita egozan 1950-rako. Arabieraren barruan be bai, Indiako hizkuntzen artean bere bai. Ilada hau luzatu egin daiteke, baina adibide lez nahiko dira. Bakarrik oraintsuko beste adibide bat ipiniko dot: Afrikako estatu desbardinaren barruan dagozan hizkuntza desbardinak batzen dabiltz oraintxe bertan eta holan lortutako atlas batzuk argitaratzen hasi be bai. Ez dabe ba kontuan hartzen hizkuntza txikia dan hala ez, herri primitibo batekoa izan ala ez.

Guk sarritan entzun izan dogun eritxi bat aldatu egiten deuskue. Eta eritxi hori da herri primitiboak edo zaharkituak, kulturaren atzeratuak dirala, herri aurreratuak baino teknika eskasagoa daukielako, gizarte erakunde txarragoak eta erlejino edo siniskera primitiboagoak. Herri horrein hizkuntza bere orduan primitiboa izango da.

Baina hizkuntzarekin hori ez da gertatzen. Eta herri primitiboen hizkuntza ez da herri aurreratuaren hizkuntza baino atzeratuagoa edo aurreratuaren hizkuntza baino primitiboagoa. Holako gauza bat entzuteak harrituta itxi leike irakurle asko, herri primitiboak hizkuntza bere primitiboa deukien eritxia oso zabaldua dagolako.

Sarritan entzun izan dogu, herri primitiboak hizkuntza primitiboak dituztela; holako hizkuntza primitiboek eundaka hitz deukiezala bakarrik, esate baterako ingelesaren milaka hitzekaz konparatuz; primitibo horreik hizkuntz urriak deukielako, behartuta dagozala heuren hitzak seinuekaz osotzen; edo primitiboak ez deukiela hiztegiarik ez gramatikarik, pentsamentuaren xehetasunik zorrotzenak eta sakonenak azaltzeko.

Holako gauza bat bera bere ez da egia. Hizkuntza guztiek, 'navajo' indioek, Australiako jatorrizko biztanleek edo kulturadun ingeles eta frantsesenek, denek deukiez soinu sistema oso zehatzak adieraziak azaltzeko, eta baita gramatika oso aurreratuak.

Hitzei edo berbei begiratu, ezagutzen dan edozein hizkuntzak badaukaz kultura horretako jendeak behar dituen beste hitz. Eta hori baino gehiago azpimarratu behar dan gauza bat: hizkuntza guztiak, gauzak adierazteko edo azaltzeko almen bardina deukie. Inglesak, frantsesak edo alemanak, gauzak azaltzeko era gehiago badaukiez, kultura aurreratuago bat lortu dabelako, beste edozein hizkuntzak neurri bardineko aurrerapena badauka, hizkuntza mailan aberastasun bardinak sortu arazoko ditu. (BEALS-HOIJER, *introducción a la Antropología*, 602-603)

Erizpide hori euki dabe hizkuntzen atlasak egin dabezanian.

Baina primitibotasun hori ez da izaten bakarrik euskerari erderatik begiratu. Eta orain 10 bat urte Iberplan-ek eta Foessa-k egin ebezan lan bi ditut gogoan. Gure artean bere nahikoa zabaldua dago, baserritarren euskera primitiboa dala eta uritarrena aurreratuagoa. Baina kanpoan atlasak egin dabezanian ez dabe ezelan bere kontuan hartu holako zatiketarik. Jaso edo batu egin dabez hizkuntza txiki eta handien datoak, baserritar eta uritarrenak.

2. Atlasak mintzairan eta antropologian oinarrituta egiten dira, ez muga politikoetan. Hizkuntza edo berbetia, etnia baten emaitzarik berezietako bat da. Kultura bardina deukien herriak bere askotan hizkuntza desbardina eukiten dabe. Europako kultura, sartaldekoa behintzat bardina da eta hainbat hizkuntza desbardin dagoz. Afrikan gauza bardina gertatzen da eta Amerikan bere. Esate baterako 1940 inguruan Kalifornian jatorrizko indioak 150.000 ziran eta erabiltzen zituzten 135 hizkuntza nahiz eta danak indio izan eta kultura bardina euki (BEALS-HOIJER, 607-608).

Horregatik atlas linguistikoak mintzairari lotuta dagoz ez estatu baten edo bestearen mugei. Hau oinarritzko joera da. Baina badagoz baita mintzaira bat baino gehiago hartzen dituzten atlasak.

3. Atlasak egiteko jakin behar diran beste gauza batzuk.

Mintzaira baten barriak batzeko, hizkuntza bat herri baten emaitza dan ezkerro, herri horren historiaren barri jakitea beharrezkoa da. Adibidez ingelesak harrapatu eben gaur Estatu batuak eta Kanada diran zatirik handienak. Eta horregatik hango hizkuntza inglesa da. Hori historiatik dakigu. Bestela han bertan bizi ziranak indioak ziran eta hainbat hizkuntza desbardinaren eukiezan. Baina indio hauen hitz batzuk gelditu dira hango inglesean.

Herri baten jeografia bere lagungarri izaten da. Esate baterako Naparroako hego alde lau lau da eta lur ona mahatsa, orioa eta garia ereiteko. Erromatarrak Españara etorri ziranian Ebrotik gorantz igon eben eta lurralde horreik bilatu ebezan. Eta bertan gelditu ziran batzuk heuren 'villa' izeneko etxeak eginik. Eta horregaitik inguruan bizi zan jenteak bere hizkuntza itxi eta erromatarrena hartu eban. Hau da, euskera itxi eta latina hartu eben seguraski. Eta lur hareik onak ziralako labrantzarako kanpotarrak sartu eta etorkinen hizkuntza hartu eben bertakoek. Gorago ez ziran sartu erromatarrak lurra txarrragoa zalako menditsua eta lautadarik barik.

Bide teknikoak bere lagungarri dira eta erabiltzen dira atlasak egiteko. Batez bere azkeneko urteotan informatika.

Atlas batek milaka datoak erabiltzen ditu. Eta kasu batzuetan miloiak bere. Esate baterako ALI, Atlante Linguistiko Italiano dalakoa egiteko, 40 urtetan batu dabez datoak eta herri bakoitzean 6.600 itaun. Ori dana eskuz idatziko baleukie, beste 40 urte beharko leukiez. Ordenadoreen bitartez osteraz askoz denpora gitxiagotan egiten da. Beste adibide bat: ALEC, Kanadako frantsesaren atlasarako 169 herritan 2.500 itaun eukazan itaunketa bat jaso eben 3.000 klmko luzeera eukien lurraldeetan. Urte bitan, 1977-1979 bitartean material hori dana ordenadoreekin klasifikatu dabe. Eta gero ordenadoreak botaten dauana dagon dagonean argitaratu eta kito. Eta holan 1980 bertan argitaratu dabe atlas hori.

II. Atlas motak

Atlasak bere izenburuan berba bi eukiten ditu edo bietatik bat, beti: Atlas linguistikoa eta etnografikoa. Izen bi horreik emoten deuskuez atlas zelangoak diran jakiteko lorratz batzuk.

1. Eduki edo maminari begiratzuz, lehenengo belaunaldiko atlasak eta bigarren belaunaldikoak edo hirugarrenekoak.

Lehenengo belaunaldiko atlasak eduki edo mamin gitxiago deukie. Gehien baten hitzak edo berbak batzen dabez, baina morfologia eta joskera gitxi. Holako adibide bat Frantziko Atlas linguistikoa daukagu (ALF) edo baita Kataluñako Atlas Linguistikoa, 1923-1926 bitartean argitaratutakoan.

Bigarren belaunaldikoak asko dagoz. Hurretik hasita, ALPI, Atlas Lingüístico de la Península Ibérica. Hemen aitatu behar dira Frantziko NALF izeneko atlasak. Proiektoa da 19 bat egitea eta 10-12 amaituta daukiez. Horrein artean ondo egina dagon bat aitatu gura dot guretzat bere laguntza handikoa izango dalako:

ALG, Atlas Linguistique de la Gascogne. Españan bereginda dagoz holako batzuk, ALEA, Andaluziko Atlas linguistikoa. ALECan, Kanariasko Atlas linguistikoa, eta ALEANR, Aragoi, Naparra Errioxako Atlas linguistikoa. Hau ez da lar ona euskeraren mugan egonda bere.

Lurraldeari begiratzuz estatu bateko atlasak. Gehien baten hizkuntza bat badaukie estatu osoa hartzen dau. Esate baterako ALI Italia osoan batuta dago.

Eskualde bateko atlasak: aitatu ditugu España eta Frantzi mailan eskualde baten edo bestean egindako atlasak. Badagoz beste batzuk bere. Italian bertan badago eginda ALEIC, Atlante Linguistico-Etnografico Italiano della Corsica, edo ASLEF, Atlante Storico-Linguistico-Etnografico Friulano.

Edo nazioarteko eskualde bitan egina eta oso ona: AIS

(Sprach- und Sachatlas Italiens und der Südschweiz), Suizako hego aldeko eta Italiako gauzen eta hitzen atlasa.

2. Hizkuntzari begiratuz

Hizkuntza desberdinetako atlasak.

Gehienetan nazioarteko atlasak izaten dira eta hizkuntza desberdinetan batuak. ALPI, Peninsulako atlasak, erderazko eta portugesezko berbak hartzen ditu.

Baina hori baino hizkuntza gehiago hartzen dituenen be badago: ALM Atlante Linguistico Mediterraneo, Mediterraneo itxasertzeko herrien atlasa. Italiara, eslaboen hizkuntza bat, albanoa, frantsesa, gaztelera eta katalana behintzat hartzen ditu.

Beste proiektu bat ere bazegoen Balkanetako atlas linguistiko bat egiteko, baina ez dakit aurrera doan ala ez.

Honen barruan sartu daiteke baita, ALE, Europako hizkuntzen atlasa. Hasita dago. Eta danak Europako adibideak ez jartzeko, Afrikan bere egin dabe, estatu bat baino gehiagotan eta herri bat baino gehiagotan bilketa bat: *Les langues sans tradition écrite. Méthodes d'enquete et de description*.

Joerarik nagusia hizkuntza bakotxaren datuak batutea izan da eta oraintsu arte izan ezik, hizkuntza bakotxaren atlasak egin dira muga politikoei jarraitu barik. Orain bere Afrikan esate baterako estatu bakotxean dagozan hizkuntza desbardin guztien atlasak egiten dabez, hizkuntza kontuan harturik, ez estatu mugak.

III. Lanen eraketa

Lehenengo belaunaldiko atlasetan, batek jasotzen ebazan dato guztiak eta beste batek edo gitxi batzuk aztertu. Baina gero itaun gehiago eta konplejoagoak ipintzerakoan, bat edo bi ez dira nahikoa holako lanak egiteko. Ekipoak behar dira.

Bestalde, holako lanak administrazioak berak ordaindu izan ditu holako lan bat herri baten aberastasun bat dalako. Kanadako atlasaren sarreran holantxe esaten dau. Eta holan da izan bere.

Mintzaira edo ahozko hizkuntza batzen dalako, liburuetan ez dagona baina egunero mintzatzaile batzuk erabiltzen dabena. Ganera holako lan bategaz grabatu egiten dira herri bateko eta besteko erantzunak eta euskeraren fonoteka bat sortzen hasiko gara. Euskalherrian monumentuak, liburuak, arte gauzak, triku-harriak etabar gorde egin dituzte gure aurrerekoak. Baina guk ez daukagu gordeta oin 50 urte zelan egiten zan euskeraz. Eta uste dot hori garrantzi handikoa dala. Behintzat gu baino aurreratutago dagozanak gorde egiten dabez heuren hizkuntzak eta oin badeukie, orain 60 edo 70 urte zelan ziran heuren hizkuntzak.

Azken baten atlas linguistikoak herri baten mintzaira zelangoa zan garai baten edo bestean adierazten dabe, eta herri horren nortasuna zelangoa zan eta dan ezagutzen lagundu. Guk bere gure lehena ezagutu behar dogu al dogun neurrian eta gure oraina, zelango geroa eraiki gura dogun jakiteko. Euskaldunok euskaldun izan gura badogu, eta Euskalherriak Euskalherri, beste herriak legez geure mintzaira ezagutu behar dogulakoan nago. Beste herrien joeran eta beste herrieta-ko atlasak hori erakusten dauku.

J. A. Etxebarria